



DIBULGAZIOZKO TXOSTENA

"Parte-hartzea eta kontuak ematea ekintza humanitarioaren xedebiztanleriengan"

TXOSTENAREN LABURPENA

Dibulgaziozko txostena
"Parte-hartzea eta kontuak ematea ekintza humanitarioaren
xede-biztanleriengan" txostenaren laburpena

Egilea: fernando **almansa.com**
think | decide | do

Humanitarian Advisor and Coach

Edizioa eta maketazioa:

**TERESA
ALMANSA** 
AUDIOVISUALES
www.teresalmansa.com



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abendua

AURKIBIDEA

1. Laburpen exekutiboa	4
2. Helburua	7
3. Azterlanaren norainokoa eta mugak	7
4. Gaia zertan den eta dauden esparru teoriko-praktikoei buruzko azterketaren ondorioak	8
5. Euskal erakunde humanitarioen eta haien toki-bazkideen parte hartzeko eta kontuak emateko praktiken gaineko ondorioak	11
6. Gomendioak	16
6.1 Gomendio orokorrak erakunde humanitarioentzat	16
6.2 Gomendioak nazioarteko erakunde humanitarioentzat eta erakunde finantzatzaileentzat	18
7. Parte-hartzea eta kontuak ematea sustatzeko eta balioesteko tresnen proposamena	20
1. eranskina. Akronimoak	21
2. eranskina. Parte-hartzea eta kontu-ematea balioesteko Excel tresnak	21
3. eta 3.1. eranskinak Metodologia	21

Laburpen-dokumentu honek "Parte-hartzea eta kontuak ematea ekintza humanitarioaren xede-biztanleriengan" azterlanaren ondorio eta gomendioak biltzen ditu. Azterlana hobeto ulertzeko, oso-osorik irakurtzea gomendatzen dizuegu.

Programa humanitarioen xede diren biztanlerien Parte-hartzeari eta Kontuak Emateari (PKE) buruzko kontzeptuzko eredu praktikoa bat edukitzea da azterlanaren helburua. Dokumentu-azterketa batean eta askotariko elkarrizketa eta galdesortetan oinarrituta egin da azterlana.

Aztertutako nazioarteko 12 esparru teoriko-praktikoetatik ondorioztatzen denez, PKEen azken arrazoen artean arrazoi utilitarioak eta arrazoi etikoak bereiz daitezke. PKE ez da ia inoiz planteatzen ekintza humanitarioaren lokalizazioaren ikuspegitik, ezta tokian tokiko biztanleriei dagokien protagonismotik ere. Askotan, xede-biztanlerien kexak aurkezteko eskubidera mugatu da PKE.

2018-2020¹ urteetan Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (hemendik aurrera, eLankidetzeta-GLEA) onartutako esku-hartze humanitarioak aztertu dira. Esku-hartze horietan, xede-biztanleria gehienak desplazatuak edo errefuxiatuak izan dira: % 84; esku-hartzeen % 36 desplazatu edo errefuxiatuen kanpamentuetan inplementatu dira; eta Ekialde Ertainak % 40 bereganatu du.

PKEaren kontzeptuaren gaineko ondorioak

Kontzeptuzko bi maila bereizi behar dira, argi eta garbi: Parte-hartze Eraldatzailea, ahalduntze-prozesu gisa ulertuta; eta Parte-hartze Operatiboa, proiektu baten esparruan jardura jakin batzuetan murgiltzera mugatzen dena. Xede-biztanleriek programa humanitarioen gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna izatea da bataren eta besteren arteko alde nagusia.

Erakunde askorentzat zaila da erabakiak hartzeko mailara pasatzea; maila operatiboan, aldiz, ondo moldatzen dira. Parte-hartze Eraldatzailea eraginkorra da, soil-soilik, ongi sustraitutako toki-erakundeek sustatzen dutenean, eta gutxieneko batzuk eskatzen ditu xede-biztanlerien egonkortasunari, iraunkortasunari, lidergoari eta antolatzeko gaitasunari dagokienez.

Parte-hartzea eraginkorra da, soil-soilik, komunitateen eta erakunde humanitarioen artean konfiantza eta errespetua sortzen duten prozesuak eraikitzen direnean. Horrek eskatzen du epe luzera lan egitea, gardentasuna, jakintza, onarpena eta tokiko tradizioak eta kultura sakonetik errespetatzea.

¹ Hondamen naturaletatik eratorritako krisiei erantzuteko 2018ko ekintza humanitarioko proiektuak alde batera utzi dira.

PKEari eragiten dioten kultura-eta ingurune-faktoreen gainerako ondorioak

Parte-hartzea eta pribatutasuna/konfidentzialtasuna kontrajarri egiten dira sarri, kolektibo jakin batzuen gainerako presio soziala handia izaten den gizarteetan bereziki. Emakume eta haurrak baztertzen dituzten kultura-inguruneak ulertzea eta erakundeek kultura-ingurune horretara egokitzeko eta hari errespetuz aurre egiteko duten gaitasuna funtsezkoak dira PKEaren arrakasta bermatzeko. Adinekoak/zaharrak dira PKEko prozesuetan parte hartzeko aukera gutxien dauzkatenak, eta, ildo beretik, oraindik asko falta da haurren benetako parte-hartzea errealitate bat izan dadin.

Talde armatuen presentzia dakarten indarkeriazko gatazketan, PKE posible da, soil-soilik, talde horiekiko solaskidetza humanitarioak parte hartzeko gune seguruak sortzea ahalbidetzen badu.

COVID-19ak parte hartzeko dinamikekin zerikusia duen guztian ezarritako mugek erronka berriak planteatzen dituzte, herrien arteko eten teknologikoa nola gaindi daitekeen ikusteko. Jendearen pobrezia, ez-jakintasuna, traumak eta marjinalitatea zenbat eta handiagoak izan, orduan eta txikiagoak dira PKE eraginkor bat ziurtatzeko aukerak.

Erakundeen eta langile humanitarioen gaitasunak, balioak eta jarrerak funtsezkoak dira PKEaren garapenean. Langile humanitarioen jarrerak, langile horiek diharduten erakunde humanitarioen balioen sendotasunaren arabekoak dira.

PKEaren kudeaketari buruzko ondorioak

Kasu gehienetan, xede-biztanleriei kontuak ematea tresna baliagarria izaten da hurrengo programak hobetearren, baina ez ditu erakundearen politika eta estrategiak aldatzen, ezta efektu zuzentzaile edo konpentsatzailerik eragiten ere.

Aurrekontu-gaietan parte hartzeak gatazkak sorraraz ditzake zenbait herritar talderen artean, eta erakunde humanitarioak, horren beldurrez, ez dira parte-hartze hori zabaltzera ausartzen.

PKE, funtsean, erakunde humanitario inplementatzaileen erantzukizuntzat jotzen da, elkarrekiko erantzukizun horizontaltzat jo beharrean.

PKEaren kontzeptuari eta ikuspegiari buruzko gomendioak

Erakunde humanitarioek PKE barnetik kontzeptualizatu beharko lukete Parte-hartze Eraldatzailean oinarritutako ikuspegi batetik, eta epe luzerako prozesuen bitartez sustatu konfiantza sortzeko moduan, PKEak aurrera egin dezan erabakimena xedebiztanlerien esku uzteko bidean.

PKEaren inguruneei heltzeko moduaren gaineko gomendioak

Erakunde humanitarioek neurri proaktibo eta ausartak hartu beharko lituzkete, kulturalki sentiberak eta testuinguru espezifikoaren arabera diseinatuak, PKE galarazten duten kultura-faktoreak desblokeatzeko, emakumeen gizarte-bazterkeria adibidez.

PKE egiteko, gatazkei sentsibilitatetik heldu behar zaie, gatazka sozial edo armatuak daudenean PKE ez delako neutroa izaten, eta gatazka areagotzea ere ekar dezakeelako berekin

PKE egitean, erakundeek gizarte- eta adin-talde bakoitzaren testuingurura egokitu beharko lukete, eta PKE eredu berriak garatu beharko lituzkete COVID-19 esperientziatik abiatuta, on line parte hartzeko metodologia berriek PKEaren kalitatea murrizten ez dutela eta bazterkeria berriak sortzen ez dituztela ziurtatuz.

PKEaren antolamendu-kudeaketaren eta kudeaketa instrumentalaren gaineko gomendioak

Erakunde humanitarioek PKEaren "Kultura" bat garatu beharko lukete, erakunde-osagai guztiak aintzat hartuz: balioak, politikak, estrategiak, programak, etab. Erakunde humanitarioek eta haien langileek balio eta kompetentzia mesedegarriak landu behar dituzte sistematikoki, hala nola profesionaltasuna, gardentasuna, gizarte-bitartekotza eta malgutasuna; eta jarrerak eta jardun profesionala kontrolatu eta monitorizatzeko mekanismoak ezarri behar dituzte PKEari dagokionez.

Finantza-malgutasuna areagotu beharko litzateke, PKEaren emaitzak egokitu ahal izateko, lehentasun eta aurrekontuen esleipen berria eginez. Gainera, proiektuen kudeaketa komunitarioko esperientziak aktiboki sustatu beharko lirateke, aurrekontu-kudeaketa barne.

Parametroen esparru koherente bat adostu beharko litzateke, PKE horren arabera egiteko. Erakunde humanitario guztiek gobernu- eta zuzendaritza-eremuak modu aktiboagoan inplikatu beharko lituzkete PKEan, gardentasuna, PKE eta erakunde-ospea argiago lotuz, PKE erakunde humanitarioen etikotasuna, fidagarritasuna eta efizientzia balioesteko eskala bihurtzeko moduan.

Azkenean, baterako erantzukizunean oinarritutako hiruko PKE eraldatzaile, integratu, barne-hartzaile, tokian tokiko eta kontsekuente bat egiteko bidean egin behar dugu aurrera.

eLankidetzak-GLEAk sustatutako "Xede-biztanleriek ekintza humanitarioan benetan parte hartzea eta haiei kontuak ematea" izeneko azterlanaren helburua da kontzeptuzko eredu praktikoa bat edukitzea ebidentzia empirikotan oinarritua, ekintza humanitarioko esku-hartzeen xede diren biztanlerien benetako parte-hartzearen errealitateari dagokionez.

Halaber, parte-hartzeari eta kontuak emateari (PKE) eraginkortasunez heltzeko jarraibide edo tresnak iradoki nahi ditu, erakunde humanarioek beren eguneroko praxian txertatzeko aukera izan dezaten.

AZTERLANAREN NORAINOKOA ETA MUGAK | 3

Azterlana dokumentuen azterketan oinarritu da, nazioarteko bibliografia zein eLankidetzak-GLEAk 2018., 2019. eta 2020. urteetan finantzatutako 43 esku-hartze humanitarioak aintzat hartuz². Proiektu eta estrategia horien xede-biztanleria gehienak desplazatuak edo errefuxiatuak izan dira: % 84; % 36 desplazatu edo errefuxiatuen kanpamentuetan inplementatu dira; eta Ekialde Ertainak % 40 bereganatu du.

Azterlana egiteko hainbat elkarrizketa egin dira. Konfidentziasunarekin, sarbidearekin, hizkuntzarekin eta COVID-19arekin zerikusia duten arrazoiek ezinezko egin zuten xede-biztanleriak hasieran planifikatu bezala elkarrizketatzea. Hortaz, azterlanaren emaitzak, tokiko, Euskadiko eta nazioarteko erakunde humanitarioen ikuspegitik ulertu behar dira. Hobe da xede-biztanleria zuzenean txertatzea, azterlanaren ondorio eta gomendioak inplementatzean.

² Hondamen naturaletatik eratorritako krisiei erantzuteko 2018ko ekintza humanitarioko proiektuak alde batera utzi dira.

GAIA ZERTAN DEN, ETA DAUDEN ESPARRU TEORIKO- PRAKTIKOEN AZTERKETAREN ONDORIOAK | 4

Xede-biztanlerien PKEaren gaia asko landu da ekintza humanitarioaren eremuan³. Gai horren gaineko erreferentzia nabarmenetako batzuk, txosten osoan erabilgarri dagoen taulan laburbildu dira, non dokumentu hauek aztertzen diren⁴:

- ▶ Ekintza humanitarioko jokabidearen kodea (Hondamendietan laguntza emateari buruzko kodea, 1995)
- ▶ Core Humanitarian Standard –CHS– (Oinarrizko Arau Humanitarioa kalitatearen eta kontuak ematearen alorrean, 2014); Esferaren eta Gutun Humanitarioaren estandarrak (Sphere Standards)
- ▶ ALNAP; Cerrando el círculo: Retroalimentación efectiva en contextos humanitarios
- ▶ HAP 2010 Araua kontuak ematearen eta kalitate-kudeaketaren alorrean
- ▶ Group URD, Quality & Accountability Compass Handbook, 2018
- ▶ Participation Handbook Group URD
- ▶ Grand Bargain
- ▶ IASC batzordearen xede-pertsona eta -biztanleriei kontuak emateko konpromisoak (2017)
- ▶ ELGEren Garapenerako Laguntzaren Batzordearen irizpideak garapenerako laguntza eta laguntza humanitarioa ebaluatzeko.
- ▶ Good Humanitarian Donorship. 24 Principles and Good Practice of Humanitarian Donorship
- ▶ Laguntza Humanitarioaren gaineko Europar Akordioa
- ▶ UN Updated Central Emergency Response Fund (Cerf) Life-Saving Criteria November 2020

³ Dokumentu honetan "xede-biztanleria" terminoa erabiltzen da esku-hartze humanitarioen xede izanik, programa horien benetako protagonistak diren herritarrak izendatzeko. Beste terminologia batzuen (herritar onuradunak, hartzaileak edo helburua adibidez) konnotazioak peioratibotzat jo daitezke testuinguru jakin batzuetan, eta horregatik testu honetan horrelakorik ez erabiltzea erabaki dugu.

⁴ Esparru teorikoak garrantziaren arabera sailkatu dira lehenik, eta, bigarrenik, ordena kronologikoaren arabera.

Ekintza humanitarioaren xede diren komunitateen PKEaren alorreko esparru teoriko-praktiko horiek aztertuz, honako ondorio hauek atera daitezke:

1. Xede-komunitateentzako PKE **90eko hamarkadako** erdialdetik egon da **indarrean** nazioarteko komunitatean, Jokabide Kode Humanitarioa agertu zenez geroztik, eta sistematikoki txertatu da ekintza humanitarioaren kalitatea hobetzeari loturik gerora ageri diren ia akordio eta tresna guztietan.
2. Ekintza humanitarioko agente gehienak ados badaude ere PKE sustatzeko garrantziaz, hura egiteko azken arazoak ez dituzte hain argi ikusten. Gutxienez **bi joera** inplizitu bereizten dira akordio eta estandarretan:
 - ▶ **Arrazoi utilitarioengatik.** PKEak kalitate handiagoko laguntza ahalbidetzen du, premietara egokituagoa eta onarpen-maila hobe batekin.
 - ▶ **Arrazoi etikoengatik.** Xede-biztanleria edo laguntza humanitarioaren hartzaileak dira beren bizitzen eta haiei eragiten dien guztiaren "jabe" bakarrak. Duintasuna, errespetua eta jabetzea funtsezkoak dira PKEarentzat, baita "burujabetza humanitarioa" ere.
3. Printzipioak berretsi egiten dira, baina erretorika horrekin batera normalean **ez da azterketa bat egiten PKEko prozesuen benetako aplikazioan inplikaturako faktoreen gainean edo horrek dauzkan ondorioen gainean**, PKEko printzipioak desira-maila batean utzita, maila praktiko batean baino gehiago.
4. Tresna batzuek printzipio orokorretatik eraginkortasunik zehatzenera egin dute salto, teknizismoz betetako "**mikrokudeaketa**" ikuspegi bati jarraikiz, baina eraldaketa horiek berekin dakartzaten ondorioei heldu gabe.
5. PKEaren ikuspegia aurkezten da, oro har, **kanpoko agente edo agente implementatzaileen emakida** baten antzera, eta **ez da planteatzen**, inondik inora, **ekintza humanitarioaren lokalizazioaren ikuspegitik**, ezta tokiko biztanleriei dagokien protagonismotik ere.
6. Oro har, kontuak ematearen kontzeptua, **xede-biztanleriaren kexak aurkezteko eskubidera mugatzen da**. Praktikan, kexa horiek erreklamazio eraginkor bihurtzeko ahalegina oso lausoa izaten da.
7. Eskubideen errebindikazioa eta dagozkien konpentsazioak egitean, hirugarrenak jartzen dira jomugan, erakunde humanitarioak baino neurri handiagoan. Laguntza humanitarioa jasotzeko **eskubidea ekintza humanitarioei eskatzeko moduko eskubidea ere ba ote den** edo borondate handiko egintza soil bat ote den airean geratzen da beraz.


8. Dokumentu batzuetan, **"PKEaren mugen"** ideia-aren zantzuak ageri dira, kasu batzuetan ez dela posible edo egokia izango iradokita.
9. PKEko prozesuak inplementatzean, **konfidentzialtasunaren, baimenaren eta gardentasunaren arteko tirabirak** ageri dira dokumentu batzuetan.
10. Xede-biztanlerien **eskura informazio erabilgarria jartzea**, hau da, informazio ulerterraza, garrantzitsua, egokia eta eskuragarria, funtsezkoa da PKEko prozesuetan.
11. PKEak zerikusi handia dauka **xede-biztanlerien erabakietan parte hartzeko eskubidearekin**, ekintza humanitarioko programen funtsezko alderdietan.
12. 2010-2020 azken hamarkadako dokumentuek oso esplizituki txertatzen dute ekintza humanitarioaren xede-biztanleriek agente humanitarioen **sexu-abusu eta sexu-esplotaziotik babesteko eskubidea** dutela, eta erakunde humanitario horiek **horren gaineko kontuak eman** behar dituztela.

EUSKAL ERAKUNDE HUMANITARIOEN ETA HAIEN TOKIKO BAZKIDEEN JARDUNBIDEEN GAINEKO ONDORIOAK | 5

Dokumentu-azterketatik, elkarrizketetatik eta galdesorten emaitzetatik honako ondorio nagusi hauek ateratzen dira, Palestinarentzat⁵ eta aztertutako herrialde guztientzat:

PKE kontzeptuaren gaineko ondorioak

1. PKEko kontzeptuzko bi maila oso desberdin bereizten dira erakunde humanitarioen artean. Batetik, PKE ahalduntze-prozesu, errespetu, duintasun, eskubide eta herritartasun gisa ulertuta; bestetik, PKE jarduera jakin batzuetan inplikatzeko dela ulertzea, proiektu baten esparruan eta proiektua errazteko prozesu baten antzera. Lehena **Parte-hartze Eraldatzailea** dela esan dezakegu; bigarrena, berriz, **Parte-hartze Operatiboa**.
2. Xede-biztanlerien programa humanitarioen gainean **erabakitzeko gaitasunak** markatzen du Parte-hartze Eraldatzailea eta Parte-hartze Operatiboa **bereizten duen marra**. Hau da, jabetzea, ahalduntzea eta azken batean ekintza humanitarioaren protagonismoa lortzen da, programa humanitarioen gainean erabakiak hartzeko gaitasuna dagoenean.



3. Erakunde askorentzat **zaila da goi-maila erabakigarri batera pasatzea**, eta ondo moldatzen dira, aldiz, maila operatibo-informatiboan lanean.
4. **Parte-hartze Eraldatzailea benetan eraginkorra da, soil-soilik, oso ongi sustraitutako toki-erakundeek sustatzen dutenean**. Proiektuak kudeatzeko behar adinako gaitasuna duen edozein erakunderen esku dago parte-hartze operatiboa, parte hartzeko ikuspegi operatiboa utilitarista delako, esku-hartzean alde aurretik ezarritako jarduerak implementatzera bideratua, ahalduntzeari garrantzi handirik eman gabe.

⁵ Palestinaren kasuan, xehetasun handiagoz sakondu da PKE ulertzeko eta gauzatzeko moduan. Palestinako emaitza espezifikoak kontsulta daitezke txosten osoko 7.2 atalean.

5. Azterlanean parte hartu duten erakunde gehientzat, PKE sistema eraldatzailea da, ahalduntzeko, xede-biztanleriaren eskubideak sustatzeko, eta biztanleriaren eta erakunde humanitarioen arteko elkarrekiko konfiantza eta jabetzea bultzatzeko prozesu baten barruan. Parte-hartzeak, aldiz, **gutxieneko batzuk eskatzen ditu xede-biztanlerien lidergoari eta antolatze gaitasunari, iraunkortasunari eta egonkortasunari dagokienez**, eta hori ez da beti hala izaten. Oso testuinguru aldakorretan, parte-hartze eraldatzailea asko mugatzen da, eta parte-hartze operatiboago eta azalekoago baterantz lerratzen da.


6. Parte-hartzean oinarritutako dinamikek ez dute beti garbi uzten **xede-biztanleriek lor dezaketen erabakimen-maila**; haietako batzuk informazioa ateratzera eta baimena lortzera mugatzen dira. Erakundeek biztanlerien eskura PKErako toki egoki bat jartzen ez badute, emaileri kontuak emateko **"informazioa ateratzeko"** jarduna, komunitateetan bidegabe sartzeko ahalegin bihurtzen da, edo hala ikusten da.

7. **Parte-hartzea** eraginkorra da, soilik, komunitateen eta erakunde humanitarioen artean **konfiantza eta errespetua** sortzen duten prozesuak eraikitzen direnean. Horrek eskatzen du **epe luzera lan egitea, gardentasuna, jakintza, onarpena eta tokiko tradizioak eta kultura sakonetik errespetatzea.**

8. Xede-biztanleriari kontuak emateak zenbait osagai dakartza berekin: **legitimitatea; informazio gardena, fidagarria eta zehatza; erabakiak hartzeko gaitasuna; erabakiak hartzeko gaitasuna, erantzukizun partekatua; gobernantza hobetzea; eta programen kalitatea hobetzea.**

9. **Pertsona adinekoak eta zaharrak** dira PKEko prozesuetan **parte hartzeko aukera gutxi dautzan kolektiboa**, eta ez dirudi erakunde humanitario gehienak horrekin oso kezkatuta daudenik. Ildo beretik, **haurren parte-hartzea errealitate bat izatetik oso urrun** dagoela esan dezakegu, nahiz eta ekintza humanitarioaren lehentasunezko kolektiboa izan⁶.

REQUISITOS PARA LA PRC



⁶ Haurren eskubideen gaineko Hitzarmenaren oinarritzko lau printzipioek ez dute beti arreta egokia jasotzen programa humanitarioetan: 1. Diskriminaziorik eza; 2. Haurren interes gorenari debozioa; 3. Bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea; 4. Haurren iritziekiko errespetua

10. Xede-biztanleriengandik haratago **"aktore parte-hartzaileen mapa"** antolatzeak helburu argiak edukitzea eta ingurunea sakonetik ezagutzea eskatzen du, baita PKE eraginkor bihurtzeko metodologia eta baliabide egokiak edukitzea ere. Koordinazio hori hainbat eta hainbat aktorerengana besterik gabe zabaltzeak ez dio xede-biztanlerien PKEari mesederik egiten, eta hura desegin eta hondatzea ere ekar lezake berekin.
11. Erakunde gehien-gehienek uste dute **parte-hartzea eta kontuak ematea prozesu beraren parte direla, baina praktikan hutsune handiak nabari dira** bi zati horiek integratzeko moduan: parte-hartzea aldez aurreko fasean eta inplementazio-fasean zentratzen da, eta kontuak ematea, berriz, itxiera- eta ebaluazio-faseetan.




Parte-hartzea eta kontuak ematea, prozesu beraren zatiak

12. Gutxienez **hiru PKE eredu** bereizten dira: **noranzko bakarrekoa**, erakundeetatik xede-biztanlerienganakoa; **bi noranzkoko**a, non baterako erantzukizun handiagoa nabari den komunitateen eta erakunde humanitarioen artean; eta **hirukoa**, non PKE biztanlerien, eskumeneko agintarien eta erakunde humanitarioen artean gauzatzen den. Azken eredu oso antolatutako gizarteetan gauza daiteke soilik; gainerakoetan, agintariekiko harremana koordinaziora eta berri-emate administratibora mugatzen da.

PKEari eragiten dioten kultura- eta ingurune-faktoreen gaineko ondorioak

1. Parte-hartzea eta pribatutasunaren eta konfidentziasunaren segurtasuna kontrajartzen dira sarri, kolektibo jakin batzuen ganean presio sozial handia egiten duten gizarteetan bereziki: emakumeak, gazteak, LGTBI pertsonak, etab. Parte-hartzeak gutxieneko batzuk eskatzen ditu **segurtasunari eta konfiantzari** dagokienez, eta gutxieneko horiek izan gabe ezin daiteke inondik inora gauzatu.
2. Bereziki emakume eta hurrei eragiten dien **kultura-ingurunea ulertzea** eta **erakundeak hartara egokitze**ko eta **hari errespetuz aurre egiteko gaitasuna funtsezkoa da** PKEaren arrakasta bermatzeko. Esaterako, tokiak hautatzea, parte hartzeko ordutegi eta bilera-egunak egokitzea eta tokiko hizkuntzak behar bezala erabiltzea funtsezkoak dira kolektibo jakin batzuen parte-hartzea bermatzeko, emakumeen parte-hartzea batez ere.
3. Talde armatuen presentzia dakarten indarkeriazko gatazketan, parte-hartzea posible da, soil-soilik, **talde armatu horiekiko solaskidetza humanitarioak** parte hartzeko gune seguruak sortzea ahalbidetzen badu. Horrek eskatzen du inplikaturako agente guztiek, emaleek eta gauzatzaileek, Diplomazia Humanitaria eta neutraltasunaren mugak ulertzea.

4. COVID-19ak parte hartzeko dinamikekin, bertaratuen kopuruarekin, PKEko metodologiekin eta beste hainbat gairekin zerikusia duten guztian agindutako mugen arabera, parte-hartze birtuala goraka ari da, eta parte-hartze fisikoa, aldiz, beheraka, eta horrek erronka berriak planteatzen ditu: nola gainditu arrakala edo eten teknologikoa?, nola egokitu parte hartzeko metodoak errealitate berrira?, eta abar. Inpaktu hori ez da behar bezala konpentsatzen ari parte hartzeko eta kontuak emateko **metodo alternatibo**en eskutik. Xede-biztanleriaren artean tableta, ordenagailu eta telefonoak banatzeko eta on line lan modu berriak egituratzeko esperientzia batzuk nabari badira ere, oraindik ez da etorkizuneko PKE eredu eraginkor eta iraunkorrik ondorioztatu.



Benetan parte hartzeko aukerak murriztu egiten dira bazterkeria- eta marjinalitate-faktoreak metatu ahala.

5. Ekintza humanitarioaren xede diren pertsonen **pobrezia, traumak eta marjinalitatea zenbat eta handiagoak izan, PKE eraginkor bat ziurtatzeko aukerak orduan eta urriagoak.**
6. **Erakunde eta langile humanitarioen gaitasunak, balioak eta jarrerak** funtsezkoak dira PKEaren garapenean edo mugatzean. Baliabide egokiak ematea funtsezkoa da PKEerako: ezagutza-trebetasunak, politikak, denbora eta baliabide ekonomikoak. Langile humanitarioek PKEari dagokionez dituzten jarrerak, diharduten erakunde humanitarioen balioen sendotasunaren arabera dira.

“Pedagogiaren eta bitartekotzaren kultura bat izanik pazientzia lan-tresna gisa txertatzen duten erakunde eta langile humanitarioek gaitasun handiagoa dute xede-biztanlerien artean parte hartzeko prozesu eraginkorrak sustatzeko”.

Erakunde humanitarioa Latinoamerikan

PKEaren kudeaketari buruzko ondorioak

1. Kasu gehienetan, xede-biztanleriei kontuak ematea hurrengo programa humanitarioak hobetzeko tresna bat da, **erakundearen politikak eta estrategiak funtsean aldatu gabe eta abian diren proiektuetan efektu zuzentzaile eta konpentsatzaile bete beharrik gabe.**
2. PKE zabalagoa eta konprometituagoa duten erakundeetan **oreka bat izaten da xede-biztanleriaren eta erakunde implementatzailearen artean**, eta, neurri txikiagoan, funtsak bideratzeaz arduratzen den nazioarteko erakundearekin. Batzuetan tirabirak izaten dira oreka horretan, proiektuaren kudeaketan zuzenean eragiteaz gainera harreman sozial eta instituzionalak kontu handiz maneiatzea eskatzen duelako.
3. **Funtsak onartzean segurtasunik ez izateak** zailago egiten du biztanleriek programa humanitarioen diseinuan parte hartzea.
4. **Parte hartzeko proiektuen kudeaketa integrala**, aurrekontu-kudeaketa barne, modu aurreratu bat da, hasierako fase esperimental batean baino ez dagoena, eta onura sozial ugari dauzka xede-biztanlerientzat.
5. Horrek **gatatzak sorraraz ditzake** zenbait herritar talderen artean, eta, horren **beldurrez**, erakunde humanitarioak ez dira ausartzen gehiago irekitzera, xede-biztanleriek **aurrekontuan parte hartzeko** bidean.
6. Nazioarteko erakundeen **“Esparru Logikoaren kultura” “ilogikoena”** ere izan daiteke, ekintza humanitarioko programen **xede-biztanlerien kultura-antropologiaren ikuspegitik**. Horrek desoreka handia dakar berekin, programa humanitarioak eta PKEak programa horietan duten lekua ulertzeko moduan.
7. Askotan, PKEko tresnak biztanleria egonkorretarako diseinatzen dira, eta beraz **ez dira egokiak biztanleriaren mugikortasuna** oso handia den testuinguruetan.
8. Funtsean, PKE erakunde humanitario implementatzaileen erantzukizuntzat jotzen da, eta ez elkarrekiko erantzukizun horizontaltzat, agian aditzera ematen duelako oraindik asko falta dela **erabakiak hartzeko transferentzia** —boterea, azken batean— tokiko biztanlerien eta haiek ekintza humanitaria kudeatzeko dituzten batzordeen esku uzteko.

PKEaren kontzeptuari eta ikuspegiari buruzko gomendioak

1. **PKEaren barne-kontzeptualizazioko ariketa** bat egitea Parte-hartze Eraldatzailearen ikuspegitik, eta horren arabera behar diren antolaketa-doikuntzak egitea.
2. PKE sustatzea epe luzerako prozesuen bitartez, erakunde humanitarioekiko **konfiantza** sortuz xede-biztanlerien artean. Egindako promesei eustea, eta, diagnostikoa egiteko, premiak balioesteko eta programak diseinatzeko faseetan, agian bete ezin izango den itxaropenik ez proiektatzea, horrek mesfidantza eragingo lukeelako, ondoren PKE eraginkorrak egiteko aukera guztiak zapuztuz.
3. **Erabakimena** xede-biztanleriei, haien batzordeei eta erakunde komunitarioei **transferitzea** ekarriko duen PKE bateranzko bidean aurrera egitea, hain zuzen ere, PKE horizontalago eta elkarrekikoago bateranzko bidean.

PKEaren inguruneei heltzeko moduaren gaineko gomendioak

1. **Neurri proaktibo eta ausartak** hartzea, **kulturalki sentiberak** eta testuinguru espezifikoen arabera diseinatuak, toki askotan parte-hartzea eta kontuak ematea galarazten duten kultura-faktoreak pixkana-pixkana desblokeatzeko, emakumeen gizarte-bazterkeria adibidez.
2. Gatazkei sentsibilitate-ikuspegi batetik heltzea, komunitateari kalte larririk ez eragiteko moduan. Gatazka sozial edo armatuen testuinguruetan PKE ez da neutroa izaten, eta gatazka elikatzeko edo gatazka modu berriak sortzeko beste iturri bat izan daiteke gainera
3. PKE zabaltzea, egokitzea eta **testuinguruan jartzea, gizarte- eta adin-taldeen errealitate, premia eta interesen arabera**: haur eta nerabeak, gazteak, helduak eta adinekoak.
4. COVID-19 testuinguruaren ondorioz **on-line PKE** teknika berriek mahai gainean jarri dituzten muga eta aukerak sistematikoki eta kolektiboki aztertzea, eta, hortik abiatuta, diskriminaziorik gabeko PKE eraginkor bat ziurtatuko duten metodologia berriak sistematizatzea, sarbide teknologikoaren arabera. Interneten oinarritutako sistemak, asmo anitzeko ikuspegi komunitario bati jarraikiz garatu behar dira. Parte hartzeko **modu berri horiek eredu egituratu eta ebaluagarrien garapena** eskatuko dute, baita proiektu pilotuak martxan jartzea ere, dauden alternatiba guztiak azkar ikasteko aukera emango dutenak.

PKEaren antolamendu-kudeaketa instrumentalari buruzko gomendioak


1. PKEko metodologia eta tresnak garatzea PKEren "kultura" batean oinarrituz eta erakunde-osagai guztiak aintzat hartuz: balioak, politikak, estrategiak, programak, proiektuak eta jarduerak.



PKEaren kultura antolamendu-maila guztietan nabarmendu behar da.

2. Xede-biztanlerien PKE eraginkorra ziurtatzeko tresnak diseinatzea, biztanleria-testuinguru bakoitzaren **kultura-ikuspegi antropologiko** espezifikoko batetik.
3. PKEko prozesuak testuinguru humanitario bakoitzerako espezifikoki diseinatzea, eta biztanleria berarekin diharduten erakunde humanitarioen artean koordinatzea, PKEko prozesuen **bikoizketak** eta herritarren artean nahasmendua **saihesteko** helburuarekin.

LANGILEEN KUDEAKETA ETA PKE



4. PKEaren kulturaren aldeko **balio eta konpetentziak** sistematikoki lantzea, hala nola profesionaltasuna, gardentasuna, ikuspegi pedagogikoa, gizarte-bitartekotza, pazientzia eta malgutasuna, eta, PKEari dagokionez, **jarrerak eta jardun profesionala kontrolatu eta monitorizatzeko** mekanismoak ezartzea. PKE eraginkorra ziurtatzeko “faktore higienikoak”⁷ kontrolatzea, bereziki tokiko kultura eta hizkuntzak ezagutzea eta langile humanitarioen jarrera enpatikoa.
5. **Proiektuen kudeaketa komunitarioko** esperientziak aktiboki sustatzea, **aurrekontuen kudeaketa barne**, kudeaketa-esparru definitu baten barruan, kontrol, efizientzia eta inpaktuko adierazleekin.
6. **Kontu-ematea gauzatzeko parametro-esparru koherente bat** ezartzea, gutxienez honako hauek bilduko dituen: printzipio humanitarioak, aurrekontu-esleipenak, efizientzia (kostua-etekina erlazioa), jarduera programatuen inplementazioa eta inplementazio-kalitatea (kalitate-estandarrek).
7. **PKEko tresna praktikoko guztien katalogo bat** edukitzea, haien testuinguru espezifikoetan aplikatzeko eta egokitzeko modukoak.
8. PKE erakunde baliuetan eta lan-ikuspegian sustraitutako gai bat izaki, erakunde humanitario guztiek beren **gobernu- eta zuzendaritza-organoak inplikatu** beharko lituzkete PKEan, modu aktiboagoan.
9. **Gardentasuna, PKE eta erakunde-ospea** modu argiagoan lotu behar dira, PKE erakunde humanitarioen **etikotasuna, fidagarritasuna eta efizientzia** balioesteko eskala bihur dadin

GOMENDIOAK NAZIOARTEKO ERAKUNDE HUMANITARIOENTZAT ETA AGENTZIA FINANTZATZAILEENTZAT | 6.2

1. **Gai humanitarioetan funtsezko konpetentzia eta gaitasun baten jabe** izatea, bere elkartasuna kalitatezko programa humanitarioetan oinarrituta eratzen dela ziurtatzeko.
2. **Malgutasuna** zabaltzea tokiko erakunde humanitarioetarantz, **PKEaren emaitzak egokitzeko** moduan, lehentasunak berresleituz, aurrekontuak doitzuz eta programak inplementatzeko moduak moldatuz, inplikaturako epeak barne.

⁷ “Faktore higienikoak” honela defini ditzakegu: haien existentzia *sine qua non* baldintza da PKE benetan gauzatzeko, baina haien existentzia soilak ez du PKE errazten.

3. Programek PKE bultzatzeko **aurrekontu-ildo espezifikoak** eduki behar dituzte, **erakunde-laguntza sistematikoen** esparruan, PKEko politika, estrategia eta eragiketak instituzionalizatuta egon daitezen, erakundeen kulturaren zati izanik.
4. **Aurrekontu-berresleipen bizkor** bat ahalbidetu behar da, PKEko prozesu sendoetan oinarrituta, unean-unean, programak xede-biztanleriaren premia, lehentasun eta testuinguruaren arabera berrorientatu ahal izateko. Horretarako, agentzia finantzatzaileek, funtsen hartzaile diren nazioarteko erakundeek eta erakunde inplementatzaileek esparru bizkor eta garden bat adostu beharko lukete aurrekontu-berresleipen horiek gauzatu ahal izateko.
5. Programa estrategikoak sustatzen jarraitzea, tokiko erakundeek eskura ditzaketen funtsak **errazago iragartzeko** aukera izan dezaten.
6. **Programa humanitarioen balioespenak** PKEari buruzko alderdi zehatzak bildu behar ditu, azterlan honen ondorio direnak.

Azken gomendioa

Etorkizuneko PKEak honela beharko du:

- ▶ **Eraldatzailea:** eskubideen, duintasunaren eta biztanlerien ahalduentzearen ikuspegian oinarritua.
- ▶ **Integratua:** parte-hartzea eta kontuak ematea prozesu beraren zati gisa integra ditzan.
- ▶ **Barne-hartzailea:** biztanle talde guztiak beren testuinguru espezifikoetan kontuan har ditzala.
- ▶ **Tokikoa:** tokikotik garatua eta tokiko protagonismo eta lidergoarekin
- ▶ **Hirukoa:** xede-biztanleriak, erakunde humanitarioak eta eskumeneko agintariak inplikatur.
- ▶ **Baterako erantzukizunean oinarritua:** non alderdi bakoitzak programaren kudeaketa integralean duen erantzukizuna onartzen duen, alderdien arteko baterako erantzukizunean oinarrituta.
- ▶ **Kontsekuentea:** PKEak politikan, estrategian eta egituraren dituen ondorioak onartuz.

PKE SUSTATZEKO ETA BALIOESTEKO | 7

TRESNEN PROPOSAMENA

PKEaren alorreko praktikak balioesteko erabilitako ereduan oinarrituz eta azterlanean lortutako aurkikuntza eta ondorioak kontuan hartuz, eredu bat proposatzen dugu, PKEko praktikak hobetzeko eta praktika horien kalitatea monitorizatzeko baliagarri.

Eredu hau hasierako proposamen bat da, prozesu honetan inplikaturako erakunde humanitario guztiek garatu beharrekoa.

Tresna hau sortu da erakunde humanitario lokal-nazionalak eta nazioartekoak erabilera partekatzeke aukera izan dezaten

Parametroak, osagaiak eta elementuak. Euskal ekintza humanitarioaren eremuan PKEaren praktikak balioesteko gaur egun erabiltzen den eskemaren antzeko bati jarraitzen zaio.

Hiru parametro handitan garatuta dago:

1. Kontzeptua
2. Testuingurua
3. Kudeaketa

Horiek honako osagai hauetan xehatzen dira:

1. Kontzeptua. PKEko kontzeptu integratua
2. Testuingurua
 - ▶ Biztanleriaren kultura-testuingurua
 - ▶ Ingurune soziopolitiko eta humanitarioa
 - ▶ Erakunde humanitarioen kultura-testuingurua
3. Kudeaketa
 - ▶ Politikak eta estrategiak
 - ▶ Tresna praktikoak
 - ▶ Erakunde-inplikazioak

Parametroak, Adierazleak eta Balioespena. Parametroak balioetsiko dira *2. Eranskineko* Excel orrian zehaztutako taulen arabera.

PKEaren kalitatea egiaztatzeke mekanismo soil bat eranstean da, txosten honen azken gomendioan oinarrituta. (*Ikus 2. Eranskina, aplikatzeko*).

AKRONIMOAK | 1. ERANSKINA

eLankidetzaz-ABCD	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
CAAPs	Commitments on Accountability to Affected People/Populations
CEDAW	Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination against Women
DAC	Development Assistance Committee
IASC	Inter-Agency Standing Committee
LGBTI	Lesbianak, Gayak, Bisexualak, Transgeneroak, Intersexualak
OCDE	Lankidetzaz eta Garapen Ekonomikorako Erakundea Parte-hartzea
PKE	eta Kontuak Ematea
WHS	World Humanitarian Summit

PKE BALIOESTEKO TRESNAK | 2. ERANSKINA

2. eranskina. [Dokumentua](#)

2.1 eranskina. [Dokumentua](#)

METODOLOGIA | 3. eta 3.1. ERANSKINAK

3. eranskina. [Dokumentua](#)

3.1 eranskina. [Dokumentua](#)

